



7- FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Tussi edalontzia gauzatzeko, hainbat baliabide beharko ditugu. Baliabide hauek hainbat multzotan sailka ditzakegu:

Alde batetik, **baliabide fisikoak** izango genituzke. Lehenik, lokal bat alokatu beharko genuke, gure produktua sortu ahal izateko. Denbora pasa ahala, gure irabaziekin, lokal bat erosi ahalko genuke, baina hasteko, alokatzea erabaki dugu.

Hau da lokala:

<https://www.idealista.com/inmueble/99945097/>



Lokala, Erreterian dago kokatua, zehazki, Alexander Fleming, 2 kalean; honen alokairua, hilero 480€-koa izango litzateke. Bestalde, honen azalera, 95m²-koa da, beraz, gure lokala sinplea izango da eta hurrengo altzairuak izatea pentsatu dugu:

Lokalean, 2 mahai luze eta 4 aulki jarriko genituzke, mahai bakoitzean ordenagailu batekin. Ordenagailuarekin ibiltzeko, wifia jarri beharko genuke. Apal bat jarriko genuke hainbat edalontzirekin.

Giza baliabideei dagokionez, Aiora, Nora, Nahia eta Irati egongo dira, erosten dituzten edalontzien jarraipena egite. Hau da, edalontzi bat erostean, garraio enpresari esango diogu garraiatzeko. Dendan bertan ere eros daiteke edalontzi bat. Hori gertatzen bada, libre dagoena arduratuko da bezeroaz. Denen artean egingo genituzke tik tok-ak. Azkenean, denbora edukiko genuke lokalean gauden bitartean.

Aiorak, edalontziak sortzen dituen enpresarekin kontaktuak jarriko da. Beraiei abisatuko die, zenbat edalontzi behar ditugun, salmentaren arabera. Horrez gain, Aiorak deituko du garraio enpresari eta edalontziak nora eraman behar diren zehaztuko die. Horrela erabaki dugu gure artean, Aiorari organizazioa asko



gustatzen zaiolako eta hortaz gain, ondo ematen zaiolako, beraz; bere lana ondo egingo luke.

Nora, instagram- eta tiktok-kontuak eramateaz arduratuko litzake. Sare sozialetatik idatziko baitzuten, bera arduratuko da erantzuteaz eta Aiorari abisatzeaz, berak enpresari abisatzeko. Haren puntu indartuena, sare sozialak eramatea baita, horregatik bere lana.

Nahia, deiez arduratuko da, hau da, **943 65 38 24** telefonora deitzen duten guztien eskariak apuntatuko ditu, eta ondoren Aiorari pasa, enpresetara bidaltzeko. Nahiri lan hau egitea tokatu zaio, azkenean, berak duelako pazientzi gehiena eta badakilako jendea eramaten.

Iratik, webgunea kontrolatuko du. Bertan egiten diren eskariak kontuan hartuko ditu eta Aiorari pasa. Iratiri lan hau egitea tokatu zaio, azkenean, berak egiten duelako hoberen informatika ulertu, web guneak... eta interneten inbestigatzen ona delako.

Hala ere, norbaitek eskari asko baditu, adibidez, Nahiak telefonoz eta Iratik ezer ez web gunetik, Nahiari lagunduko lioke. Hau da, ez dugu esan nahi bakoitzak aipatutako lana soilik egin behar duenik, baizik eta gure artean lagunduko garela. Izan ere, horrela aukeratu ditugu lanak bakoitzaren indarguneaz baliatuz.